

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 219. zkia. 2014ko urtarrila



**Abeletxe
egoitzako kideak
lipdub-eko izar**



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:

10:00etatik 14:00 etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Leidako Unibertsitatea eta Madril.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.** Inplantologia Masterreko Irakaslea. **Leidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Institutuetako Irakasle gonbidatua. **Madridgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Inplantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Madridgo Unibertsitate Konplutensea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Autran Institutoa, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Leire Elustondo,
Estibalitz González,
Ane Saénz eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Abeletxe Egoitza.

LAGUNTZAILEAK:

Eneritz Aranburu, Amaia
Arriaga, Rosa Baltar, Aitor
Cid, Zaida Fernández,
Antonio Hernández 'Cuco',
Fede Iturriagagoitia,
Patxi López, Pello Mugarza
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Abeletxe Egoitza, Eneritz
Aranburu, Leire Elustondo,
Zaida Fernández, Estibalitz
González, Pello Mugarza,
Valentin Mugarza, Orihen
taldea eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.400 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-215/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

GABILLARA TXIKIA *Cernícalo Falco tinnunculus*



Miru txikia, miruxka, kabadade gorritzta, belatz gorria... txori berarentzako tokian tokiko izen ugari, hegoen gorritasunari erreparatuta jarritakoa bat baino gehiago. Ezer ikusgarria badu, ehi-zarako erabiltzen duen teknika da: zeruan paratzen da geldi-geldik, buztana eta hego-puntak kieto, zirkinik egin barik. Puntu baten ez atzera ez aurrera egoten daki, goiko aldeko ikuspegi horretatik guztia zelatatzen. Lurrean sagutxo, sugandila, apo edo ugaraxoren bat mugitzen ikusi orduko, hegoak batu eta bolido baten antzera urratzen du haizea. Lurretik metro batera-edo, neurtuta balu bezala, dza! zabalduko ditu hegoak eta erpeekin, orratz zorrotzenaren pare zulatuko du bere harrapakina. Garbi bertan! Sarri galdetu diot nire buruari zelan hartzen duen hain abiada beldurgarria. Pisatu ere zer pisatzen du ba? Hutsa!

Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4 Candy Fernández	KIROLZALE17 Naïke Ereñozaga
ELKARRIZKETA5-7 Orihen musika taldea	IRITZIA18 Abortatzeko eskubidea
MALLABIAN ZER?8-9 Goitako zumarra	SALEROSKETAK19 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN12 Euskal Birusaren ekimenak	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERREPORTAJEA14-15 Abeletxe Egoitza, saritua	KALEKO INKESTA21 Merkealdiak
BOTEPRONTOAN16 David Elejalde	AGENDA22 Otsaileko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Candy Fernández

Boliviako hiriburuan jaio zen orain 40 urte eta 7 daramatza jada gurean. Bi seme nerabe han utzita etorri zen eta bizimodu berria aurkitu du Mallabiko Artamendi baserrian. Ia bi urte dituen Maitane alabak betetzen du bere eguna, Bolivian dituen seme eta 4 ilobak ahaztu gabe.

- Nolako zen zure bizitza Bolivian?

Zaila, bizirauteko beste irabazten nuen, baina soldatak ez zuen beste ezertarako ematen. Fusindon, Down Syndromea duten umeentzako zentro batean egin nuen lan 3 urtetan eta baita etxe partikularretan ere, zerbitzuan. Eguneroko bizitza aurrera ateratzeko justu geneukan, alokairua, janaria eta oinarrizko beharrak asetzeko bestekoa. Ahizpa batekin utzi nituen 17 eta 16 urteko semeak, ni hona lan bila etortzeko.

- Zer dela eta etorri zinen hona?

Semeak hazten zihoazen eta unibertitate garaia heldu zenean, ikasketak ordaintzeko behar nuen dirua irabazte- ra etorri nintzen. Neure etxe propioa edukitzea nahi nuen, hemen irabazitakoa bidali nahi nien semeei; bizimodu hobea eskaintze aldera. Elgoibarren bi- zi den ahizpak eta koinatuak dirua utzi zidaten bidaia egiteko, eta zortea izan nuen. Uztailearen 23 batean heldu nin- tzen eta abuztuaren 1ean hasi nintzen lanean Artamendi baserrian, Tomas zaintzen.



- Zer da gehien harritu zaituena?

Jendearen tratua, oso ondo hartu ninduten hasieratik. Boliviarekin alde- ratuta hemen langile eta ugazabaren arteko alderik ez dago. Han hotzagoa da erlazioa, hemen ez naiz gutxiago ikasketarik edo dirurik eduki ez arren, nik horrela sentitu izan dut behintzat. Orain nire bikotea den Jose Antoniok gogorarazten dit nire bila etorri zene- an, kotxean atzeko aldean eseri nin- tzela; eta beste behin, bazkaria pres- tatu eta plater bi ipini nituenean, be- rarentzat eta aita Tomasentzat, esan zidala "Zuk ez duzu bazkaltzen ala?". Diskriminaziorik ez dut sentitu, horrek bete eta motibatu egiten nau.

- Zer irabazi duzu? Zer galdu?

Asko irabazi dut, estabilitatea lortu dut, bikotea, alaba Maitane... hara bueltatzeak berriro zerotik hastea esan nahiko luke. Semeak han dira, or- dea, eta horrek ematen du min gehien, asko sufritu baitugu, batez ere gaztee- nak, baina euren bizimodua daukate,

euren familiak. Oso gogorrak izan ziren hasierako urteak, semeak ikusi gabe nahiz eta telefonoz hitz egin egunero. Beraiek esaten dute: "Ez gara ezer txar- rrean sartu amari esker" eta hori nire- tzat dena da. Seme onak ditut eta lau iloba!

- Boliviara bueltatzen zara?

Bai, hona etorri eta lau urtera buel- tatu nintzen, paperak egin ostean. Se- me zaharrenaren ezkontzara joan ahal izan nintzen. Urtean behin-edo, joaten naiz eta hala segitzeko esperantza dut, bidaia garestia den arren.

- Hemen geratzeko asmoa duzu?

Momentuz bai, pozik bizi naiz Artamendin, Jose Antoniorekin eta Maita- nerekin. Aitak esaten dion bezala "Ar- tamendi txiki" da bera.

- Euskara ikasteko asmorik baduzu?

Tomas ahalegindu zen hitz batzuk erakusten eta gustatuko litzaidake ikas- tea euskal kantuen hitzak-eta ulertze- ko. Ea umea eskolara hasten denean...

Eneritz Aranburu

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



Orihen musika taldea:

“Zoragarria da ideia bat abesti bihurtzen denean”

2013ko udan sortu zen Orihen, duela urte erdi eskas, kontzertuak emateko xedearekin. 18 eta 33 urte bitarteko bost gaztek osatzen dute taldea eta rock-punk eta hardcore melodikoa nahasten dutela aitortzen dute. Dagoeneko 4 kontzertu egin dituzte: lehena Getarian, azkena Legazpiko Gaztetxean, eta 2014ko maiatza bitartean beste 10 bat kontzertu lotuak dituzte jada, ‘Primer latido tour’ biraren baitan (Euskal Herrian, Errioxan, Ávilan edo Salamancan, esaterako). Azken zuzenekoa, momentuz, maiatzaren 17an eskainiko dute Ermuan, Vertigo Rock jaialdian.

- Nortzuk osatzen duzue Orihen?

Andonik baxua jotzen du, Maialenek eta Moshky-k gitarrak, Mikelek bateria eta abeslaria Cillo da.

- Herriko musika taldeak ezagutzen dituztenei, izen batzuk ezagunak egingo zaizkie...

Bai, beste talde batzuetan ere aritzen garelako: Andonik baxua jotzen du Red Blazen eta gitarra Stai Zitto-n; Maialenek Egaran jotzen du; Mikel Guerrero Stelarren aritzen da; Cillo Insohmnioko abeslaria da eta Moshky-k baxua jotzen du Storbaisen eta LPCKo gitarrista ere izan zen.

- Eta beste talde horiek ez dituzue alde batera utzi?

Ez, neurri handiago edo apalagoan, gure beste taldeekin jarraitzen dugu denok: Orihen guztien osagarri da. Gure taldeek oso estilo markatua dute eta horietan egin ezin dugun musika egiten dugu Orihenen. Beste estilo batzuei tartea egin eta konposatzeko modu berriak probatu nahi genituen.

- Zerk batzen zaituzte?

Gehienbat, jotzeko gogoak.



- Zergatik Orihen?

Origen izena ipini nahi genion hasieran, baina Asturiasen beste talde bat zegoen izen berarekin. 'H'-a 'G'-aren ordeztu ipintzea erabaki genuen orduan, nahiz eta berdin ahoskatzen jarraitzen dugun. Taldea sortu aurretik ere, bagenuen izena aukeratua eta horren bitartez zera adierazi nahi dugu: musika maite dugulako sartu garelako honetan, eta instrumentuekin bihurrikerietan hasi ginenean bezala sentitu nahi dugula, beste taldeekin lehen kontzertuak ematen hasi ginenean sentitzen gi-

nen moduan... Ondo pasatzeko jotzen genuen orduan, gure musika nork izango zuen gustuko pentsatu barik. Gure sustraietara bueltatu nahi dugu.

- Nola definituko zenukete zuen estiloa?

Rock-punk eta hardcore melodikoa nahasten ditugu. Bakoitzak gure estiloa dugu, baina talde batzuen zale gara denok: Berri Txarrak, Rise Against... eta neurri batean, euren eragina du gure musikak ere. Hala ere, ez dugu baztertzen egiten dugun beste ezer eta sortzen den 'koktela' ikustea gustatzen zaigu. Zoragarria de idea bat abesti bihurtzen denean!

- Nola sortzen dituzue abestiak?

Lehen bi edo hiru abestiak Moshky-k, Maialenek eta Cillo egin zituzten, Andoni eta Mikel taldera batu baino lehen. 'Demo'aren gainontzeko abestiek, eta sortzen ari garen gainontzekoek ere, beste ukitu bat dute: orain denok egiten ditugu ekarpenak. Andonik zein Mosh-ek 'riff'ak (nahiko aurreratuta dauden estrukturak) ekartzen dituzte eta lokalean forma ematen joaten gara: Maialen eta Mikel moldaketekin, Cillo letra eta ahotsekin...

- Erabakiak ere guztion artean hartzen dituzue?

Bai, guztiok egiten ditugu gure ekarpenak eta, zorianez, norabide berdinean gaude. Nagusiek esperientzia ipintzen dute eta gazteek, sekulako gogoak eta Al-

“Orihenekin gure sustraietara bueltatu nahi dugu”

ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-entrepresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
2012ko BILBOKO
TXORIZO TXAPELLETAN
BIZKAIKO
TXAPELDUNAK
PROBALEKU 3-943170563
ERMUA

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

boka Musika Eskolan eginda-ko ikasketak eta praktika.

- Zertan eman duzue denbora taldea sortu zenutenetik?

Entseatzan, entseatzan eta entseatzan. 4 kontzertu egin ditugu jada eta harrera ona izan dute. Sare sozialetan promozioa egin genuen eta Kabolamusik Elkarteo Ritxiren laguntza dugu bai promozio zein kontzertuak lotzeko. Urtetako lanari esker, mundu honetan mugitzen den jende asko ezagutzen dugu eta MPR Produktions-eko Txarlyk ere aurkezpen biran lagundu digu.

- Ondo moldatu zarete lehen kontzertuetan?

Oso ezberdinak izan dira. Lehena Getarian egin genuen, oso urduri, eta bigarren abestian anplifikadore bat apurtu zitzaigun. Gure lehen kontzertu akustikoa

ere egin dugu (oso esperientzia polita izan dena) eta bestalde, guk, Vertigo Rock-ek eta Gurutze Gorriak antolatutako elkartasun kontzertua egin genuen San Pelayon. Beharra duten umeentzako 200 jostailu jaso genituen. Azken kontzertua, berriz, Legazpiko gaztetxean egin dugu, urtarrilaren 18an, Nafarroako Khaus taldearekin batera, eta orain arte egin dugun kontzerturik deskafeinatuen delaren esan dezakegu.

- Oso arin hasi zarete zuzenekoekin, ezta?

Bai, hori nahi genuen hasieratik eta 5 hilabete baino gutxiago eman genuen lehen kontzertua eskaini arte. Gaur egun 50 minutuko zuzenekoak dugu, guk sortutako 6 abestirekin eta 5 bertsiokin. Hurrengo kontzertuetan

“Albait arinen lehen diskoa kaleratzeko asmoa dugu”

rako beste bi abesti ere prest ditugu jada.

- Lehen aipatu duzuen moduan, demoa kaleratu duzue?

Bai, Interneten dago entzungai eta horrez gain 150 CD kaleratu ditugu. Edizio sinplea da, eta 3 eurotan eskuratu daiteke, gure kontzertuetan edo Internet bidez eskatuta. Gure ‘bandcamp’eko orritik ere deskargatu daiteke doan, edo donazioa eginez, baten bat eskuzabal sentitzen bada.

- Nola grabatu duzue maketa hori?

Guk egin dugu. Nahastemahi batera ‘mikrofonatu’ genuen ekipoa eta grabazio ‘gordin’ horiek etxera eramantzen zituen Cillok. Ordu asko inbertitu zituen abestiak prestatzen eta horren ostean, moldaketak, ahotsak eta koroak sartu genituen. Bukatu genuenean, eta emaitza ikusterakoan, erabaki genuen maketa publiko egitea.

- Zer eskaintzen dizue ‘bandcamp’ plataformak?

Zure musika ordenatuta izan dezakezu; ibilbidea ezarri; streaming bidez en-

tzun edo deskargatu, doan zein ordainduta; merchandising-a gehitu daiteke... MySpace mugatuagoa zen.

- Zerbait daukazue eskeretzeko norbaiti?

Bai, gure familia, lagun eta bikotekideei batez ere. Ordu asko igaro ditugu lokalean eta eurekin egoteko denbora murriztu behar izan dugu. Kontzertuetara doan jendeari ere asko zor diogu, ez gure kontzertuetara bakarrik, baizik eta hasiberri den edozein taldetxo ikustera doazenei.

- Nola irudikatzen duzue zuen etorkizuna?

Disfrutzatzeko eta kontzertuak egiteko xedearrekin sortu da Orihen eta, egunen batean, baldintza horietako bat beteko ez balitz, desagertu egingo litzateke taldea. Epe motzari dagokionez, bira bukatutakoan, gure beste taldeetan zentratuko gara, uda garaian kontzertuak emateko esperantzarekin. Bitartean, Orihenekin abesti berriak sortzen jarraituko dugu, albait arinen gure lehen diskoa kaleratzeko asmoa dugu-eta.

Dorleta Vidal



AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

SEHIGA

PROTECCIÓN LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Artisau-pizzak · Etxeko razio eta postreak

Etxera eramango dizugu!

943 17 67 74

Ostiral eta larunbatak: 20:00-00:00 / Igandeak: 20:00-23:00

Goitako zumarra

Zumardia izena emoten jakue Euskal Herriko hiri eta herrietako pasialeku batzuei. Euskeraz zumardia eta gazteleraz alameda. Gaztelerazko 'álamo' euskeraz makala edo zumartxuria be deitzen da. Azken hamarkadetan, baiña, zumar arbolak desagertu egin dira Euskal Herrian. Kakalardoek zabaltzen dabenek grafiosi izeneko gaitz batek jota, baktartuta dauezan bakar batzuek baiño ez dabe jarraitzen bizirik. Euskal Herrikoa ez ezik, Europa eta espainiar Estatuko zumar populazioa be ixe erabat desagertarazi dau gaitz horrek eta Estatu Batuetara be zabaldu dala dirudi.

Zumarraren egurra erabilerreza da eta errez lantzen dana. Oso estimatua izan da, batez be itsasontzigitzan, hezetasunarekiko daukan erresistentziagaittik. Horrez gainera, errez ugaritu eta hazten dan landarie da.

Iberdrolaren agindua

Ez dago zalantzarik Euskal Herrian oso zuhaitz preziatue izan dala, baiña esandako moduen, bakaurren batzuek baiño ez dira geratzen.

Horretaiko bat da Goita auzoan dagoen zumarra.

Udaberri aldera, argindararen linearen azpian euezan arbolak eraisteko agindua emon eban Iberdrolak, babestuak eta ez babestuak. Auzotarrek ikurtzat daukaten arbolie desagertzeko zorian egon zan.

Auzotarren haserrearekarri eban Iberdrolaren erabakixek eta zeozer egin beharra euela erabaki eben. Iberdrolarekin kontaktuan jarrita, baimen guztiak eukezela adierazi eban. Orduan, Foru Aldundiko teknikoekin jarri ziran harremanetan arbola honen berezitasuna azalduz, arbola salbatzeko ahalegiñetan. Foru Aldundiko teknikoek be arbola berezia dala ikusi eben eta, azkenien, Bizkaiko arbola babestuen kataloguen sartzie erabaki dabe.

80 urte

Frantzisko Gisasola, Zelai baserrikoak esaten dabez, bere aita Victorianok landatu eban, bera mutikoa zala. Ia 80 bat urte izango dittu auzo elkarteari izena emoten deutesen zumarrak.

Goitako zumarrak gain, Bizkaiko Aldundiak arbola berezien zerrendan sartzeko beste sei arbola proposatu deutsez Eusko Jaurlaritzari: Turtziozko haritz motza, Karrantza



haraneko Trevilla Iturriko sekulako artea, Zaratamoko Burbustu auzoko haritz motza, Galdameseko San Esteban auzoko arte motza, Karrantzako Ahedo plazako arte motza eta Karrantza Uharka auzoko gaztainondo motza.

Oin artien, Bizkaixen bost dira berezien zerrendan sartute euezan arbolak: Garai eta Muxikako artiek, Artzentalesko haritz hibrido bat eta Gorbeian, Zeanuriko Arimekortan dauezan bi hagin.

Pello Mugarza

Ferreteria/Burdindegi

ANBOTO

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulak

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es

MALLABIKO Herriko taberna

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIA

ETXERA

Eguneko platera (3€), menua, bokatak, plater konbinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

943 174 952
(asteartetan itxita)

SAHARA 2014 ELIKAGAI BILKETA

Aurten be, Mallabiko Udalak elkartasun kanpaina antolatu dau Sahara herrixai elikagaixek helarazteko. Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu sahararrek elikagai aldetik pasatzen dabizen krisialdixe arintzeko helburuz betetzen dan kanpaina da hau. Aurten eskatzen dien elikagaixen artien honakuek dagoz: hegaluzie orixotan (latak), azukrie, arrosa, lekak, sardiñak eta konpresak. Udaletxien jasoko dittue produktuok urtarrilaren 31 bittarte.

AUZO-KONPOSTA

Dagoeneko prest dagoz herrixen egin zien lau auzo-konpost guniek. Guztire 70 familiak emon dabe izena. Erabiltzaille hauek urtarila hasieran jaso eben konpostajian ikastarue. Behin kontratue siñatute, bakotxari dagoixon gunie erabiltzeko giltze eta kubue jasoko dabez egun hauetan; otsailien auto-konpostajie egitten hasteko. Udalak azaldu dabenez, proiektu honetan aurrerago be emon ahalko da izena; bete beharreko baldintza nagusiek, ikastarue jaso eta kontratuek siñatzie die. Auto-konpostaje kanpaiñarekin batera, lursaille deukenentzako be beste batzar-hitzaldi bat egin da urte hasieran. Honetan izena emon dabenek konpostajerako materixela (konpostagailue, aireztagailue eta gidaliburue) jaso eben. Behin auto-konpostajiaz hasitte, aholkularitza zerbitzue be eukiko dabe prozesue zelan doien eta suertatu leikezan zalantzak argitzeko. Kanpaiña honetan be, edozein momentuten emon leike izena; beraz, interesa daukenak informaziño gehixa udaletxien jaso leike.

BIODANTZA IKASTAROA

Urtarrilaren 14an emon jakon hasierie Emakume Elkarteak antolatutako biodantza ikastaruari. Eskolako gimnasioan egitten da asteartero, iluntziko 20:00etatik 21:30etara, eta ekainera arteko iraupena eukiko dau. Izena emoteko, deittu 686 91 28 50 telefonora.

ABENDUAREN 19KO OHIKO BILKURA

Ohiko Bilkura honetan HAPO planari (Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra) behin-behiñeko onarpena emon jakon aho batez. Azaruene egindeko planaren aurkezpenan ostien, guztire 9 alegaziño jaso zien. Aholkularitza Batzordiek alegaziñuek aztertu eta horren irizpidiek jarraitute erantzune emon jakue danei. Oin Bizkaiko Foru Aldundixan esku dau behin betiko onarpena egittie. Onartuteko HAPOa laster Udaleko webgunien jarriko da ikusgai. Horrez gain, Ohiko bilkura horretan Euskararen Erabilera Plan barrixe (2013/17) berronartu zan. Bertan euskararen erabileraren egoeraren barri emoten da, UEMAK bere baitan dauezan udaletarako onartute dittuen hizkuntza irizpidiek kontuen hartute, eta plangintzaldi honen amaierarako lortu beharreko helburu orokorrak zehazten dittu. Euskara plan honen helburu nagusixe Udalien euskararen erabilerie indartzie eta gehitzie da, bai zerbitzu hizkuntza, baitte lan hizkuntza modure be, euskararen erabilerie bermatu eta herritarren hizkuntza eskubidie erantzun ahal izeteko.

IKURRINARI OMENALDIXE

Beste herri batzuetara moduen, Mallabire be heldu da bandera espainola jartzera behartzen daben agindue. Hori dala-ta, otsailaren 1erako ikurrinari omenaldixe eingo jakon ekitaldixe eitteko asmue dau herrixen:

- 12:30ean, trikitilarixekin kalejirie udaletxetik.
- Ondoren, idatzixe irakurri eta ikurriñian igoerie.
- Agintariena dantza.
- Umiek horman margotzeko murala parkien.
- Ikurriñian mosaikue parkien.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412



Montis DQ
Mouth



DANAONA
IZOZTUAK ETA
AURREKOZINATUAK



Descubrete



Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

- Teak, kafeak eta ezta.
- Belgiako txokolatea.
- Eguneko tea eta gozokiak dastagarri.
- Teontziak, katiluak...

Oparitzeko
neurria
egindako otzarak!

GOIENKALE Z/G
ERMUA
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7
ARRASATE
Tel. 943 770 598

Olatz García Arregui, San Pelayo Hertz Klinika: “Nabarmenezkoa da pazienteekiko dugun hurbiltasuna”

San Pelayo Hertz Klinikak 15. urteurrena beteko du aurten. Olatz García Arregui doktorea da bertako zuzendari eta, beste 4 profesionalekin batera, bezeroek dituzten behar guztiei erantzuteko prestakuntza eta esperientzia duen lan-taldea osatzen dute. Urteurrenarekin batera, bezeroen leialtasuna saritzeko asmoa dute.

- Zein urtetan zabaldu zen San Pelayo Hertz Klinika?

San Pelayo Hertz Klinika 1999. urtean jaio zen baina gaur egun daukagun lan-taldea 2007an sortu zen. Urte horretan ekin nion nik kliniko gidaritzari.

- Zerk bereizten du San Pelayo Hertz Klinika?

Batez ere, espezialitate guztiak eskaintzen ditugula, esperientzia zabal batek babestuta. Horrez gain, gure helburu nagusia pazienteen aho-hortzen osasuna da eta haiekiko dugun hurbiltasuna nabarmenduko nuke.

- Zeintzuk dira klinikak eskaintzen dituen espezialitateak?

Inplanteak, hortzetako kirurgia, ortodontzia, periodontzia, zuriketak, estetika, odontologia orokorra eta

Eusko Jaurlaritzak umeentzako eskaintzen duen PADI programa, besteak beste. Hiru odontologo gara klinikan eta bakoitzak bere espezialitatean jarduten du.

- Odontologia etengabe garatzen ari da, ezta?

Bai, gaur egun teknologia etengabe garatzen da eta gure esparrua ez da salbuespena. Horregatik, teknikarik berritzaileenek eskaintzen dizkiguten aurrerapen eta aukerak arretaz jarraitzen ditugu lan-taldea osatzen dugun guztiok. Hori guztiori gure tratamenduei balio erantsia emateko helburuarekin.

- Eta zeintzuk aurrerapen gehitu dituzue azkenaldian?

Ortodontziaren esparruan egin ditugu aldaketak, esaterako. Ohiko ortodontziatik



San Pelayo Hertz Klinika
San Pelayo kalea 5, 1.
Ermua - Bizkaia
943 17 04 04

autoligado pasiboko ortodontziara egin dugu jauzia, ‘Damon’ sistemari esker. Horren bitartez, tratamenduen iraupena laburtzea lortu dugu eta horiek jasangarriagoak bihurtu ditugu pazienteentzat eta ez hain kaltegarri hortzentzat. Era berean, inplanteen arloan, kalitaterik goreneko inplanteekin eginen dugu lana.

- Bezero fidelak dituzue?

Gure taldeak 2007an ekin zion ibilbideari klinika honetan eta, 7 urtetan lan gogorra egin eta gero, bere konfiantza gudan jarri zuten bezeroek gurekin jarraitzen

dute. Ez dago leialtasunaren adierazle esanguratsuagorik! Eskerrak ematen dizkiegu horregatik.

- 15. urteurrena dela-eta, zerbait berezia egiteko asmoa duzue?

Bai, urtariletik ekainera bitartean klinikara datozen bezero guztien artean hortzuriketata bat zozketatuko dugu. Ekainaren erdialdera egingo da zozketa, sarituak uda aurretik aprobetxatu ahal izateko.

“Ortodontzien iraupena laburtu eta pazienteentzat jasangarriagoak bihurtu ditugu”

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

J. LUCAS

PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36



ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Urtarrilean matrikula zabalik



TALDEAK MAILAK ETA ORDUTEGIAK

	9:30-12:00	16:30-19:00	18:30-21:00
Behe maila	•		
1.H.E/HABE 1.MAILA		•	
2.H.E/HABE 2.MAILA	•		•
3.H.E/HABE 3.MAILA	•		•
Hasiera maila (2 egun astean)	•		

Klaseak astelehenerik ostegunera

AZTERKETA OFIZIALAK MAIATZEAN ETA IRAILEAN

Langabetuek eta lehen mailako ikasleek, prezio erdia

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua

Tel: 943170925

euskaltegia@udalermua.net

SANTA AGEDAKO ENTSEGUAK

Otsailaren 4an, urtero legez, Santa Agedako koplak abestuko ditu herritarrez osatutako taldetxoak. Entseguak osteguneguz egingo dira, urtarrilaren 23 eta 30ean, 21:00ean, Alboka Musika Eskolan. Ekimen honekin jasotzen duten diru guztia, Egoarbitza GKEari emango diote.

SONIA LORENTEK IRABAZI DU MAHAI ZENTROEN II LEHIAKETA**11.872 EURO BILDU DIRA TONBOLAN**

12.000 euro lortu dira Tonbolan. Jasotako dirua 6 proiektu ezberdinen artean banatu da: Peru, Senegal, Kolonbia, Uruguay eta Ermuko Caritasen artean. Antolatzaileek ermuarren eskuzabaltasuna eskertu nahi dute.

Euskal Birusak hainbat ekimen burutuko ditu otsailean**BAZKIDEEN KUOTAK KOBRATUKO DIRA**

Otsailaren 15etik aurrera bazkide kuotak kobratuko zaizkie Euskal Biruseko bazkideei. Bestalde, bazkide izan nahi dutenek 35 euro urtean ordaindu beharko dituzte eta 20 euro urtean 18 urtetik beherakoek eta erretiratuek. (Erdikolake 2 / 943030465 / euskalbirusa@gmail.com).

D EREDUAREN ALDEKO KANPAINA

2 eta 3 urte bitarteko umeen aurre-matrikulazio garaia dela-eta, D ereduaren aldeko kanpaina ipini du martxan laugarrenez Euskal Birusa Elkarateak. "Matrikulatu D ereduari. Gaur egun gehien euskalduntzen duen eskola eredu delako" leloa daramaten idatziak ipiniko dira herriko peora guztietan.

ERMUAN KANTUAN

Otsailaren 22an egingo da hurrengo Ermuan Kantuan, 12:30ean hasita. Ermuko abeslari eta musikari taldea gonbidatu du Elkarateak hitzordua alaitzeko.

HARTZA EGUNA

Otsailaren 28an Hartza Eguna ospatuko da. 18.00etan irtengo da kalejira plazatik, Alboka Musika Eskolako trikitilariak lagunduta, eta kaleetan barrena hartzarekin batera Hartzaren Koplak abesteko aukera izango dute nahi duten guztiak. Bukatutakoan 200 bokadilo banatuko dira plazan. Euskal Birusa elkarateak, Kaltxango AEK Euskaltegiak, Udal Euskaltegiak, Eskolabarrik eta Anaitasuna Ikastolak antolatuta.

Sei ermuar aritu ziren Euskal Selektioarekin

Abenduaren 14an lagunarteko partida jokatu zuen Emakumezko Eskubaloia Euskal Selektioak Txileko Selektioaren aurka, Elgoibarren. Bertan Ermuko sei lagun egon ziren: Matxalen Ziarsolo (jokalaria eta kapitaina), Eli de la Cruz (atezaina), Maialen Agirregomezkorta (jokalaria), Leire Álvarez (delegatua), Imanol Álvarez (entrenatzailea eta hautatzailea) eta Olatz Arrarte (2. entrenatzailea).

Ingeleseko DOAKO prestakuntza

Ingeleseko doako prestakuntza-ekintzak, EAEko langile guztiei eta Lanbiden izena emanda dauden langabeei zuzenduta

Zure txanda!**Akerlei**
hizkuntzak

BIZKAIA ETORBIDEA, 5 Behea - ERMUA

943 17 66 32www.akerlei.com

**BADIRA ATE BAT IREKITZEAN
HASTEN DIREN PROIEKTUAK**

“ Enpresa, ekintzaile eta
ikerlari berritzaileen
esperientzietatik
ikasten dugu.

Nerea Txintxurreta,
Mekanikako Ingeniaritza,
3. maila.



PREST

**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRI · URTARRILAK 23
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

DONOSTIALDEA · OTSAILAK 1
Larunbata, 10:30 / Orona Fundazioa

ARRASATE · OTSAILAK 8
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · OTSAILAK 8
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · OTSAILAK 13
Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

BILBAO · OTSAILAK 15
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · OTSAILAK 8
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · OTSAILAK 8
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center

DONOSTIA · OTSAILAK 13
Osteguna, 18:00 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



Abeletxe egoitzako kideak, 'lipdub' lehiaketan sarituak

Urgatzi taldeak antolatutako I. Lipdub lehiaketa irabazi dute Abeletxe Egoitza eta Eguneko Zentroko langile, erabiltzaile eta horien senideek. Ezjakintasunetik abiatuta, lan gogorra egin behar izan dute saria lortzeko: abesti egokia eta protagonista xebreak aukeratu, behin eta berriro entseatu eta dekorazioari arreta ipini. Emaitza, berebiziko poza!

Abenduaren 27an txangoa egin zuten Abeletxe Egoitza eta Eguneko Zentroa osatzen duten lagunek. Baina ez zen edonolako txangoa izan. Izan ere, Euskalduna Jauregian egin zen galara gonbidatu zituzten ermuarrak. 650 lagunetik gora bildu zen bertan, guztiak Urgatzi Taldeak kudeatutako egoitza, eguneko zentro edota adingabeen zentroetatik etorritakoak. Eta zerk bildu zituen bertan? Bada, I. Lipdub lehiaketa.

Baina, zer da lipdub bat? Play-back antzerako ikuski-zuna da: abesti bat entzun eta abesten egongo balira bezala jokatu behar dute parte hartzaileek. Kamera-ekin eta sekuentzia bakar batean grabatu behar da lipdub-a, filmatzaileak ibilbide

bat egiten duen bitartean (egoitzaren barruan, kasu honetan). Bidean agertzen direnek abestia kantatu eta dantzatu behar dute.

Raphael

Buelta asko eman eta gero, Abeletxeko langileek

Raphaelen 'Mi gran noche' abestia aukeratu zuten. Horrek "esaldi bat esateko aukera ematen ziolako parte hartzaile bakoitzari", diote Lourdes Ortiz, Susana Rodríguez eta Silvia González langileek. Jarrera 13 erabiltzaile 'saltsero' aukeratu zituzten, lipdub-a zer den azaldu eta bakoitzak ikasi beharreko esaldiak entseatzeko hasi ziren. Hilabetez, egunero kale egin gabe, entsegua egiten zuten: "Sarri esaten genien: letra ahazten ba-

zazue, mugitu ezpainak! Kontua da erabiltzaile askok ikasteko eta oroimeneko arazoak dituztela eta ez zirudien erraza, baina azkenean denek ikasi zuten letra. Harrituta geratu ginen euren gogo ona ikusitako!".

Bestalde, lan eskerga horrek maila bereko dekoratua eskatzen zuen. Eta erabiltzaileak izan ziren honen arduradun ere. "Zenbat ordu eman zituzten binilodisko eta izar formako kartulinak moztzen eta globoak



Abeletxeko erabiltzaile, senide eta langileak lipdub-a grabatu zen egunean.

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPUNKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

Zure publizitatea:

**drogeteniturri
aldizkarian**

943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

**mari
asun**

LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379



puzten! Baina dena pozarren egiten zuten, euren alaitasuna egoitza osoan barrena zabaldu zen”.

Ordubeteko geldialdia

Irailaren 24an, dena prest zegoenean, artelana grabatu zen. Protagonistez gain, egoitzako 100 erabiltzaile, eguneko zentroko 30 lagun, beste horrenbeste langile eta makina bat senide agertzen dira bideoan. Ordubetez dena geratu zen egoitzan: sukaldian, garbitegian... “ho-

rrek, honelako leku batean sor dezakeen nahasmenarekin, baina, inork ez zuen nahi kale egin”.

Hiru hilabete berandugo, abenduan, sari-banaketan gela egin zen Euskalduna Jauregian, Yolanda Alzola eta Txetxu Ugaldere gidaritzapean. Bertan, lehiaketara aurkeztutako 18 lipdub-ak ikusi zituzten Ermutik joandako 60 lagunek, beste herri batzuetatik joandako beste 600 lagunekin batera, eta... a ze sorpresa Abeletxetarrena hasi zene-

an!: “Ikusle guztiak oihuka eta txaloka hasi ziren”, diote langileek. Baina, zerk bereizten zuen ‘Mi gran noche’ beste lipdubetatik? “Gure ustez erabiltzaileek zuten protagonismoan egon zen gakoa. Beste bideo batzuetan instalazioak ikusten ziren baina erabiltzaileak ez ziren ia agertzen”. Ermukoan, berriz, protagonistak ageri-agerian daude, euren zatitxoa abesten eta berdin jantzita: neurrirra egindako txaleko, alkandorra zuri, praka beltza eta onddo-kapelarekin. Eta euren kategoriako saria (klaketa bat) autobusean ekarri zuten Abeletxeraino.

Horrez gain, ermuarrek bestelako ekarpena egin zioten galari: duela gutxi

Abeletxen sortutako abesbatzak 3 abesti kantatu zituelako bertaraturakoen aurrean. Izarrez beteta dago egoitza!

Gala goizean izan zen eta 16:00ak arte ez ziren bueltan izan. “Erabiltzeek euren errutinak dituzte eta horietatik ateratzen badi-tuzu, asko nekatzen dira - diote langileek-. Egun horretan baina, dena eman zuten: gutxi jan, deskantsatu barik... Adrenalina topera zuten bueltako autobusak hartu zituzten arte. Orduan lo seko geratu ziren!”. Ondo egindako lana eta gero, ondo merezitako loaldia!

Lipdub-a ez da publikoa oraindik, beraz, egoitzan eskatu beharko dute baimena bideoa ikusi nahi dutenek edota erabiltzaileen senideei eskatu.

Dorleta Vidal



Abenduaren 27an jaso zuten saria, Euskalduna Jauregian, 650 lagun aurrean



Igeltserotza - Iturgintza
Errekalde
Esteban Goikoetxea
Errekalde baserria, 1
48260 ERMUA Bizkaia
Tel: 662 51 42 68
errekalde.gm@gmail.com



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

DAVID ELEJALDE

- Zer egiten zenuen gaztarroan?

Ermuan zehar edo mendian 'inque', 'karika', pilota edo futbolera jolasten genuen, nahiz eta futbol zalea izan ez.

- Zein da garai bateko jolasen eta gaur egungoen arteko aldea?

Lehen jolasteko irudimen handiagoa genuen, guk geuk prestatu behar baikenuen jolasa.

- Ikasketarik bai?

Oinarrizko ikasketak ditut, eta AEK-ko euskaltegia euskara ikasi nuen. Bukatutakoan, barnetegi batera joan nintzen.

- Non hasi zinen lanean?

Amaya Tellerian hasi nintzen, gero Peñiscolara joan eta bertan izan nintzen lanean. Ermura bueltatzean Gredos taberna hartu, eta tabernari aritu nintzen 6 urtez.

- Non jarduten duzu egun?

14 urte daramatzat enpresa bateko biltegi batean, eta LAB sindikatuko delegatua naiz bertan.

- Zein ordutan hasten duzu eguna?

Goizeko 7etan altxatzen naiz, eta 8etatik eguerdiko 3ak arte egiten dut lan. Beselako behar berezia daukat arratsaldean, Izaro zaintzea.

- Zure lanaren alde positiboa?

Enpresa osotik mugitzen naizela, eta batzuekin oso harreman ona daukadala.

- Lagunak...

Betirako dira, momentu on eta txarretarako. Lagun gutxi dauzkat nik!



Duela 45 urte jaio zen David Elejalde. Bi anai-arreba dira, eta Susana arreba baino urtebete gazteagoa da bera. Sonia du neska lagun, eta 5 urteko alaba dute, Izaro. Aitarengandik datorkio mendi zaletasuna, berarekin joaten baitzen ehizan edo perretxikotan. Hurrengo ekainean ospatuko den Hiru Handiak proba egiteko prestatzen dabil.

- Burua lasaitzeko zer egiten duzu?

Mendira edo eskalatzera joaten naiz.

- Biziorik?

Liburuak erostea. Askok gustatzen zaizkit liburu historikoak, abenturazkoak, mendiaren gainekoak ...

- Nola definituko zenuke zure burua?

Jenio txarra dut, irekia eta oso kritikoa naiz.

- Erraz haserretzen zara?

Erraz ez, askotan bai. Baina gero azkar pasatzen zait, e!

- Zein musika estilorekin identifikatzen zara?

Punk-rock, rock, blues-rock. Eskorbuto, La Polla Records, Cicatriz taldeak gustatzen zaizkit.

- Munduan barrena bidaiatu duzu?

Patagonia, Kanada, edo Europako hainbat herrialdeetan egon izan naiz.

- Zer da nahi baina egin gabeko hori?

Alaska edo Zeelanda Berria joatea.

- Uda ala negua?

Negua.

- Amets bat?

Denok arazo barik bizitzea.

- Kirola ...

Kirola egitea gustatzen zait, baina ez ditut kirolak telebistatik asko jarraitzen. Gorroto dut 'kirol abertzaletasuna', futbola gobernuen arma da herritarrak tontotzeko!

- Jateko gogorik?

Pasta edo arrautza frijituak piper berde eta patatekin.

- Zerk urduritzen zaitu?

Nahi duzun horregatik ez borrokatzeak urduritu ez, 'mala hostian' jartzen nau! Herritarrok kalera irten eta borrokatu behar dugu!

- Politika ...

Niretzat dena da politika, baina ez naiz partidu zalea.

- Ondo ezkontzen zara teknologiarekin?

Ez daukat harreman txarririk.

- Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Monarkia bukatu da eta abortua libre eta dohaineko izango da betiko!

- Berriz jaioko bazina ...

David izango nintzen berriro. Zergatik aldatu?

- Gogoko duzun esaldirik?

Lagun bati liburu bat oparitu eta honakoa idatzi nion: "Gogoko dut esna amestea, amestutakoarekin oroitzen naizelako. Lokartutako amestea, ordea, ahaztu egiten dut hurrengo goizean".

- Zer falta da Ermuan?

Edo zer sobran? (barre artean). Diru-laguntzen banaketa hobea eta azpiegitura zein kontzertu gehiago.

Leire Elustondo



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGAÑA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Naike Ereñozaga, Ostots Triatloi Kirol Klubeko kidea: “Zirkuituko duatloirik politenatarikoa da Ermukoa”

Mungiarra da Naike, biologian lizentziatua, eta 36 urte ditu. Lau urte eman ditu gure artean bizitzen eta herriko hamaika kirol saltsatan sartuta dagoelako ezagutzen dute askok: spinning-eko irakaslea da kiroldegian, korrika egiteko nesken taldetxoaren sortu du eta azkenaldian, otsailaren 8an burutuko den V. Duatloia antolatzen dabil buru-belarri.

- Zer dela eta etorri zinen Ermura?

Eibarren egiten nuen lana, ingurumen-aholkularitza batean, eta ez nuen nahi ko-txearekin ibili. 2009an etorri nintzen eta duela urtebete Mallabian bizi naiz. Orain Derion egiten dut lana, esparru berean, eta kotxea behar dut berdin-berdin. Tratu txarra egin dut!

- Eta kirola duzu gustuko?

Batez ere, bizikleta gustatzen zait. Lehen lehiatu egiten nuen eta hemen spinning-eko klaseetara joaten hasi eta irakasle titulua ateratu nuen. Orain 2 ordu ematen ditut astean, baina sasoi batean 8 ordu ematen nituen, lanetik bueltan. Anemiarekin bukatu nuen.

- Ostots Triatloi Klubeko kidea zara, ezta?

Bai eta 33 lagunaren artean, neska bakarra naiz: neska gehiago behar ditugu taldean lehiatu ahal izateko! Horrez gain, zuzendari-tza-taldean sartu naiz aurten eta otsailaren 8an egingo den V. Duatloia antolatzen gabilta orain.

- Aurreko urteetan beranduago egin izan da duatloia, ezta?

Bai, baina beste proba batzuekin bat egiten zuen. Aurten Euskadiko lehen proba izango da Ermukoa.

- Nola baloratzen dituzu aurreko edizioak?

Ez dut esaten guk antolatuta dagoelako, baina zirkuituko politenatarikoa da Ermukoa eta hoberen antolatuta dagoena. Herriko jen-



deak dena ematen du, bizikletarako kultura dago...

Mungian baino jende gehiagok animatzen nau hemen!

- Zenbat denbora daramazue antolatzen?

Azken 2 edo 3 hilabeteak. Gainera, babesle berriak lortu eta sekulako sariak ditugu.

Egunean bertan 100 laguntzailerik egongo dira eta 190 parte hartzaileentzako lekua dugu, Duatloi Txikia egingo da....

- Etorkizunerako zeintzuk erronka dituzu?

Orain krolean hasi naiz eta horrez gain, Iron Man erdia egiteko asmoa dut, Nafarroako Aritzalekun seguru-erakundearekin, ekainean.

Dorleta Vidal

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

ONAINDIA
HARATEGIA

Etxean egindako odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44
Mug. 678 64 85 41

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astehenera ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Abortatzea ez dela gure eskubidea? TURURU!!!!

Abenduaren 27an eta 28an, abortatzeko eskubidearen aldeko mobilizazioak egin ziren Euskal Herriko bazter guztietan, baita gure herrian ere. Elkarteratzeak eta itxialdiak egin ziren han eta hemen eta guztietan erabakitzeke eskubidea eta sexu askatasunaren aldeko oihuak entzun ziren. "Gure gorputza gure erabakia" dela oihukatu genuen, berriro ere "abortu askea, doakoa eta sare publikoan" egitea exijitu. Plaza eta osasun zentro ezberdinetan eskubideak ez direla negoziatzen eta abortua eskubidea dela, eta emakumeen sexualitatea amatasunera mugatzeari uko egiten diogula azaldu genuen.

Ordutik zapore gazi-goza geratu zaigu: batetik, aldarrikapen horiek orain dela 30 urteko berberak direlako. Abortatzeko eskubidea mugimendu feministaren aldarrikapena

izan delako 70eko hamarkadatik. Gogoan dugu garai horietan, estatuko emakumeek abortu klandestinoen arriskuak pairatu behar izaten zizutela edota inguruko herrialdeetara abortatzera joan. Orain 'Fatxardon' bultzatzen ari den lege erreforma atzerapauso bat da, beste ahalegin bat da emakumeen bizitza eta gorputzen kontrola berreskuratzeko. Gezurra badirudi ere, hori gertatzen da gaur, XXI. mendean.

Bestetik, zapore ezin gozoago dugu erantzun tinkoa eta zabala izan dutelako Mugimendu Feministatik antolatutako ditugun ekintzek. Esate baterako, Ermuan 200 pertsona inguru elkartu ginen abortatzeko eskubidea exijitzeko eta 'Fatxardonen' legearen kontra erantzuteko. Ez dugu onartuko sistema patriarkalaren eta gure jendartearen sektore kontserbadore eta atzerakoien eraso hori. Gaine-



*Rosa Baltar eta
Zaida Fernández*

*Ermuko Emakumeen
Asanbladako kideak*

ra feministok abortatu nahi duten emakumeei laguntzen jarraituko dugu eta beharrezkoa bada, orain dela 30 urte egiten genuen moduan, sare klandestinoak sortuko ditugu.

Azkenik, itxialdian eta mobilizazioetan gurekin bat egin zuten guztiak borrokan jarraitzera animatu nahi ditugu, eta bereziki, neska gazteak borroka feministan parte hartzera gonbidatu. Ez dute erraz izango, ez dugu atzerapausorik onartuko eta aurrean izango gaituzte. Emakumeok gure gorputzaren jabe garelako!

Ez dugu onartuko sektore kontserbadore eta atzerakoien eraso hori



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es



ILEAPAINDEGIA
Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33




D. ARRAL 97 S.L.
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892
arral@arral97.com
www.arral97.com

Ardo banatzailea:
Luis Cañas
Cantosán Verdejo
Viña 65 Verdejo
Amaren
Añada Real
Cava Oriol Rosell
Nitida
Montepinos

LAN BILA

Mutil arduratsuak bere burua eskaintzen du edozein lan egiteko: etxeko lanak, tailerrak, banaketak, gidari lanak...
© 631429711. Andrés.

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko.
© 672 076 852



Urtarrilaren 12an
Zorionak Paule printzesa.
Hiru muxu potolo familia guztiaren partez.



Urtarrilaren 8an
7 urte gure bizitza alaitzen, urte askotarako Martin.



Otsailaren 5
Zorionak Luka zure lehenengo urtebetetzean!!
Asko maite zaitugu.
Amatxo, aitatxo eta Samuren partez.



Otsailaren 8an
Zorionak Luken zure 5. urtebetetzean. Musu pilo bat aitatxo, amatxo eta Aialaren partez.
Ondo pasa zure egunean!!

Hurrengo zenbakirako azken eguna: OTSAILAREN 19a

hamburguesería
TITANIK

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

MUGA **KIROLAK**

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatuak...
...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

T XALAPARTA ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

**MALLABIA
1946**

Argazki hau Indalecio Ojanguren argazkilari eibartar ospetsuak atera zuen, Mallabiko Goita auzoan, 1946 inguruan.

Bertan agertzen dira Pedro Gallastegi, Juan Jose Gallastegi, Claudio Ziarsolo, Basilio Gallastegi eta Alejandro Gallastegi.

**Abenduko argazkian, agertzen ziren baita ere: Pedro Mari San Martin eta Ventura Ruiz.*

**ERMUA
1957**

Mus txapelketa antolatu zuten Patxi tabernan eta finala jokatu José Antonio San Martin eta Agustin Intxaurreaga bikoteak, Bernabé Diego eta Juanillo Garcia aguazilaren kontra. 1.000 pezetako saria zegoen eta lehenengoek irabazi zuten; partida ostean Ostatuko tabernan egindako bazkarian 'jan' zituzten irabazitakook.

Ikusmira handia sortu zuen partidak eta gizon aldra ederra hurreratu zen jokalarion ingurura, tartean Floren Gastón, Juan José Aramburu, Elias Madarieta, Ziriako Ortiz de Zarate, José Mari Crespán, Angel Fernández... Pedro Ocón izan zen argazkilari.

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

Quetzal berria!!
[arropa, bitxiak, opariak...]
ekainetik aurrera
Eibarren ere

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500

Inkestek diotenez, 88 euro gastatuko ditu euskaldun bakoitzak neguko merkealdian, batezbeste. Iaz baino % 3,5 gehiago bada ere, 2007ko aurrekontuetatik urrun dago kopuru hori oraindik. Orduan 138 euro gastatu zituen herritar bakoitzak.

**Merkealdian erosteko ohitura duzu?
Gastatu dezakezuna aurretik planifikatzen duzu?**



Behar dudana baino ez dut erosten eta aurten, adibidez, ez dut ezer erosi. Erraztasunak ditugu (bono-denda, esaterako) eta entzunda daukat jendeak asko gastatzen duela, baina nik ez, ez naiz batere kontsumista. Ez dut erosten eroste hutsagatik.

Silvia Moya, 33 urte



Berdin erosten dut, beharpenetan edo beharpenak ez daudenean, hau da, behar dudanean erosten dut. Batzuetan, beharpenetan gustuko dudak zerbait ikusten badut, erosi egiten dut, baina orokorrean ez ditut gauza asko erosten.

Andoni Doce, 39 urte



Normalean, urtean zehar erosten ditut behar ditudan gauzak. Gero, beharpenak hasten direnean, gustuko ditudanak erosteko aprobeztatzen dut: arropa eta botak, batez ere.

Danel Gorritxategi, 19 urte



Behar dudanean erosten dut nik. Ez naiz egoten beharpenen zain zerbait erosi nahi badut. Hala ere, egia da beharpenak daudenean kapritxoren bat erosten dudala beti.

Iratxe Fuentes, 36 urte



- Beharpenetara joan beharko gara, ezta?

Tasio eta Sabino



- Prest gaude!

ZINEA

1tik 3ra:

'A propósito de Lewyn Davis' +
'La gran belleza'

8tik 10era:

'Agosto' + '
En la flor de la vida'

15etik 17ra:

'Grandmaster' +
'La ladrona de libros'

22tik 24ra:

'Los lobos de Wall Street' + 'Obra 67'
Hainbat ordutegi.
Ermua Antzokian.

ZINE-KLUBA

Hilak 6:

'La vida de Adele'

Hilak 13:

'La herida'

Hilak 20:

'Asier eta biok'

Hilak 27:

'Nymphomaniac 2'
20:30etan.
Ermua Antzokian.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 2:

'Rodencia y el diente de la princesa 3D'

Hilak 9:

'Jelly T. Tarzán eskasa (euskeraz)'

Hilak 23:

'El caballero Don Latón 3D'
17:00etan. Antzokian.

MUSIKA

Hilak 4:

Agata Deunaren kalejira. 18:30etatik.

Hilak 14:

Kontzertua: '3 libertarios'. Amancio Prada.
22:15ean. Antzokian.
Sarrera: 10€

Hilak 15:

Blues Kontzertua: Travelling Brothers.
20:00etan. Lobianon.
Sarrera: 8€

ANTZERKIA

Hilak 7:

'Terapias' Vaiven Produkzioen eskutik.
22:15ean. Antzokian.
Sarrera: 10€

Hilak 21:

Antzerkia: 'Ondoko tipoa'. Iker Galartza eta Aitziber Garmendiarekin.
22:15ean. Antzokian.
Sarrera: 10€

ERAKUSKETAK

Hilaren 2ra arte:

Argazkiak: 'Africa'. Rafael Marrodán.

Hilaren 3tik 16ra:

Argazkiak: 'Ibilibidea 2013ko Ermua Antzokiko ikuskizunen zehar'. Oscar Blanco.

Hilaren 18tik 2ra:

Talde erakusketa: Gunearen inguruko prozesuak.
18:00etatik
20:00etara.
Lobiano Kultur Gunean.

UMEENTZAKO IKUSKIZUNAK

Hilak 1:

Haurrentzako ipuin-kontaketa Antton Irustaren eskutik.
17:30ean.
Udal Liburutegian.

Hilak 22:

Haurrentzako antzerkia: 'Kibubu', Marie de Jongh taldearen eskutik.
17:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 4€

Patxi López

INAUTERIAK

Otsailak 27, osteguna.

Eguen zuri:
15:30. Oilararen jokoa.
17:00. Diskofesta: Xaibor Dja.

Otsailak 28, ostirala.

Hartza eguna:
18:00: Kalejira plazatik hasita.

Martxoak 1, larunbata

12:30. Kalejira: Irulitxa txaranga.
17:30. Umeentzako txokolatada.
18:00. Umeentzako erromeria: Irulitxa txaranga.

19:00. Txaranga kalejira.

19:30. Umeentzako mozerro lehiaketa.
23:00. Dantzaldia: Caimán orkestra.

Martxoak 4, asteartea

16:00. Umeentzako diskoteka.
18:00. Kale ikuskizuna: 'Cavals de Menorca'. Dubitats.
19:00. Txaranga kalejira.
23:00. DJ Festa Oihan Vegarekin.
Ekitaldi guztiak Orbe Kardinalaren plazan.



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

**Infreñu
Taberna**



Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Eskolabarri



Eskola
Jasangarria
Ziurtagiria



Certificado
de Escuela
Sostenible

Ikastetxea

Bizitzen ikasteko, haurrentzat egina!



www.eskolabarri.edu.es

**HURBILDU ZAITEZ GURE PROIEKTUA EZAGUTZERA!
BISITA GIDATUA**

Urtarrilaren 31n, 9:30etik 11:00etara; SAN BLAS (Santa Ana-Lehen Hezkuntza)
Etortzerik ez baduzu deitu eta beste egun batean elkartuko gara

MATRIKULAZIOA ZABALIK

Otsailaren 3tik 14ra

KONTAKTUA

943177115 ypacios@eskolabarri.edu.es

EUSKARAN eta gure herriko ohituretan oinarritutako hizkuntza proiektua
Eskola Iraukorraren Ziurtagiria (IRAES) / Eskolaz kanpoko ekintzak / Jantokia 2 urteko gelatik aurrera
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak izendatutako Proiektu Eleanitz Berriztatzaileak
Laguntza Gela / Psikopedagogia Orientazio Saila
Eskolamendi / Ingelesa 3 urtetik aurrera



mendi irteerak
federatzeko tramiteak
liburuak
mapak
mendiko materiala
ikastaroak
kainoak
rafting
argazkiak
eta... giro bikaina!!

<http://www.artarrai.com>

<http://artarrai.blogspot.com/>

artarrai@euskalnet.net

ostegunero, 19:30etik 20:30era liburutegiaren gainean